

ERREALITATEAREN ISLA KOADROETAN 2009-03-02

Iraganeko historia oinarri hartuta, gizakien arteko rolen aldaketa marraztu du Lide Kaltzada artistak bere lanetan.

Lide Kaltzada (Gernika-Lumo, 1977) artistaren ' Heziketa sentimentala ' erakusketa dago ikusgai Euskal Herria Museoan, martxoaren 31ra bitartean. Museoa irekita dagoen ordutegian izango da ikusgai erakusketa.

Lide Kaltzadak, gaztea izanik ere, hainbat sari jaso ditu, tartean Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen Ertibil 2006 erakusketa ibiltariari zegokiona. Hainbat tokitan erakutsi ditu bere lanak, banakako zein taldeko erakusketen bitartez.

Artista gazteak bere lanak akrilikoaz, ' collage ' -ekin edo elkarren ondoan jarrita egiten ditu. Koadroetako protagonistek euren artean lotura dute, osotasun bat sortuz. Sortutako espazioak, aldiz, ulergaitzaren misterioa dauka.

Euskal Herria museoan ikusgai dauden 25 obretan emakumearen mundua eta kultura islatzen ditu artistak; bere trauma, frustrazio, desio, rol eta beste zenbait balore agertuz.

Koadroek errealitatea dute hizpide. Hala ere, detaile txiki batzuek irreal bihurtzen dituzte lanak. Ironiaren bitartez, nahikoa bazterturik dagoen egoera baten salaketa moduan azaldu ditu bere obrak Lide Kaltzadak.

Narrazioarako erraztasunarengatik eta hizkera figuratiboagatik, Kaltzadak bere koadroak ikuslegoarengana hurbiltzen ditu, nolabaiteko nahasmena sortaraziz.

Publizitatearekin eta erijioarekin lotura zuzena duten lan horietan metafora erabiltzen du artistak. Iraganeko historian gizakiek zituzten rolak euren artean aldatuta agertzen ditu.

Beraz, Kaltzadak gaur egungo egoera nola ikusten duen azaltzen du erakusketan. Esaterako, emakumearen irudia agertzen du hainbat koadrotan, bere gorputzak pizten duen desiraz baliatuz. Beste kasu batzuetan, ordea, emakumezkoaren papera betetzen ikus daiteke gizonezkoa, edota alderantziz.

Izaro Mendieta